

2016ko martiaren 18a

HASIEREA BARRIAK BIDAIDE KULTUREA MUSIKEA AGENDA BARRIKETAN BLOGAK BOTAZINOAK
BIZKAIIE azokak antzerkia bertsoan erakusketak jantzea jardunaldiak **kulturbiz** literatura sariak-autortz

hasiera > kultura > kulturbiz > Google Researchek Eneko Agirre irakaslea saritu dau

Kultura: Sariak-autortzak Google Researchek Eneko Agirre irakaslea saritu dau

    Zabaldu Inprimidu Bialdu lagun bati

Eneko Agirrek, UPV/EHUko Informatika Fakultadeko Lengoaia eta Sistema Informatikoak Saileko irakasleak eta **IXA** ikertaldeko kideak, Googlek urtero emoten dituan ikerketa sarietako bat jaso dau (**Google Research Awards**). Agirre irakasleak, azterlana egiteko, Aitor Soroa irakaslearen, Oier López de la Calle ikertzailearen eta Josu Goikoetxea doktorego ikaslearen laguntzinoaa izan dau.



Eneko Agirre

Googlek 10 sari emon ditu hizkuntza prozesamenduaren alorrean. Beraz, Agirrek ez eze, saria eroan dabe, besteak beste, Harvardeko, Berkeleyko, Edinburgoko eta Washingtoneko unibersidadeetako ikertzaileek be. Danetara, Googlek 151 proposamen saritu ditu (informatikearen 18 esparrutako 950 hautagaien artean), 55 herrialdeetako 350 unibersidadek bialdutakoak. Eneko Agirre irakasleak 50.000 dolar jasoko ditu *Learning Interlingual Representations of Words and Concepts* ikerketarako, berben eta on-line kontzeptuen hizkuntza arteko esanahia aztertzeke.

Gaur egun, itzulpen automatikoen edo sareko bilaketa motorren arazoa berben literaltasuna da; hau da, aplikazioak berbaz berba itzultzen edo bilatzen dau berbea, esanahiari erreparau barik. Alabaina, Googlek saritutako lanari esker, leitekeana da hori nabarmen hobetzea.

Eneko Agirrek azaldu dauenez, *ikerketa honen helburua berben esanahia irudikatzea da; hau da, jakitea bi berben esanahiak noiz dagozan lotuta hizkuntza batean edo hizkuntza desbardinetan. Hiztegi bat eskuetan euki eta zein berbek daben esanahi antzekoa eta zeinek ez jakitea bezela litzateke. Kasurako, bide emongo leuskigu jakiteko 'banku' berbearen esanahia 'aurrezki kutxa' eta 'aulki' berben antzekoa dala, zer esan nahi dan, baina 'astelehen' edo 'katu' berbearen desbardinak. Azken batean, guk berba baten esanahi desbardinak irudikatzen doguz, eta bereiztu geinkez 'banku' berbearen zentzu batek 'aurrezki kutxa'-gaz eta besteak 'aulki'-gaz dauela zerikusia, baina ez alderantziz. Ganera, gure proposamena gai da hainbat hizkuntzatarako berben esanahiak espazio bakar batean irudikatzeke; horri esker, jakin ahal izango dogu 'banku' berbearen zentzu bat ingeleseko 'bank' berbearen eta euskerazko 'kutxa' berbearen antzekoa dala, eta beste zentzua 'chair' eta 'aulki' berben antzekoa, baina bi zentzu horreetako bat be ez dala 'astelehen', 'Monday', 'katu' edo 'cat' berben antzekoa.*

Prozesua gauzatzeko, irudikapen hori ikasi behar da agiri pilo batean oinarrituta, adimen artifizialaren metodo matematikoak erabiliz. Irudikapena ikasitakoan, sistemeak datu basean begiratzen dau ia zein beste berben antzekoa dan guk bilatu edo itzuli nahi dogun berbea. Eta, esanahiaren arabera, berba hori daben dokumentuak erakusten ditu, nahiz eta zehatz ez izan idatzi dogun berba berbera.

Horrezaz gan, metodo hau edozein hizkuntzatan ezarri daiteke. Dana dala, ikerketan hiru hizkuntza hartu dira ardatz: gaztelania, euskerea eta ingelesa. *Guk darabilgun aplikazio informatikoa erabat automatikoa da, eta, horri esker, erabilten dogun edozein hizkuntzatarako irudikapenak ikasi leikez.*

Metodo mueta horreei eusten deutseen metodoak dira Eneko Agirrek UPV/EHUko Donostiako Informatika Fakultadeko **Language Analysis and Processing** masterrean emoten dauen ikastaroaren oinarria.



agenda

Bertsolaritza - 2017 VII. Gazteen Bertso Unai Menizabal, Ait

Jantzea - 2016-03- Erromeria herrikoia JANTZAN' saioa

Musikea - 2016-03- XVI. Eleiz Musika Z SANTA MARIA KO

irakurriena iruzkindu


- 1 Koldo Zuazo: 'Eusl diranean, euskere...
- 2 Xabier Kalzakorta: esaldi bortitz et... -
- 3 Irakurketa errazeko argitaratu ditu Ga..

bizkaie! facebookeko

 **Bizkaie!**
5,354 likes

Like Page

Be the first of your friends to



 **Bizkaie!**
5 mins

Google Researchek Eneko saritu dau: <http://www.bizkaie.com/orokorra.php...>




Zure iruzkina

* Markatuta dagozenak bete beharrekoak dira

Izena *

E-Posta *



Idatzi laukian alboko letrak *

E-posta helbidea ez da publikatuko.
 Konfirmazioetarako bakarrik erabiliko da.
 Bizkaie! egiten dogunon partez, eskerrik asko mendebaldeko euskalkian idatzitako Sareko aldizkari bakarra irakurteagaitik.

bizkaie! sarean



Flickr



Facebook



Twitter

blogak



Mundua
Iñaki Atx
Berba ta b



Ardi txik
Miren Iba
Nazinoarte zertan?



Izena, iz
Alex Uria
Zergatik?

hemeroteka

Bizkaie! Egunez egun, egun

Aukeratu urtea	<
Urtea	A M
	1
Aukeratu hilabetea	7 8
Hilabetea	14 1
	21 2
	28 2

Babesleak:



Sariak:

